

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 247. alea - 2020ko urtarrila



**Hegoak Ethiopian elkartasun  
proiektua aurkeztu dute**



**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295

# IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA



**Calbeton**  
JATETXEA

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan


Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**BURU - ZURI**  
Taberna

- Orartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Ute guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA



**LIGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197



**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



ekodenda,  
dietetika,  
beldarrenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

# AURKIBIDEA

4

## GUTUNAK

“Badatoz kaldereroak!”,  
“Amaiera polita eman  
genion urteari”, “Olabe  
Garajea; hiru belaunaldi”...

10

## ERREPORTAJEA

Hegoak Etiopian  
Elkartea sortu berri dute;  
Alaitz Escudero azaldu  
digu proiektua

12

## IRUDI GALERIA

Eguberriei  
eta urte hasierari  
errepaso,  
iruditari

14

## LITERATURA

Literatur lanak  
aitona-amonentzat;  
Arbil elkartearen banatu  
dira lehiaketako sariak

16

## B. GAZTEA

Agenda 21 proiektuarekin  
bat egin duten ikasleei  
elkarrizketa,  
denbora-pasak...



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Erredakzioa

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Terese Larrañaga

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Inprimategia:** Euskalinpri

**Lege gordailua:** SS-246-2009

ISSN 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatu NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

## Badatoz kaldereroak!

XIX. mendean, eta agian lehenagotik ere, ohikoa zen noizean behin Europako erdialdetik abiatuta Europan zehar ibiltzen ziren familia edo tribu batzuk gurera iristea. Gertakizun garrantzitsua izaten zen kaldereroen etorrera, besteak beste, haien janzerak, kantak, dantzak eta ohiturak oso bereziak eta ikusgarriak baitziren.

Gure artean zeudenean, euren lanbideari ekiten zioten: eltzeak, bertzak eta metalezko beste gauza batzuk konponetzen zituzten. Eskulangile trebeak zirenez, Donostiako jendeak lan asko enkar-gatzen zizkien.

Beraz, urte askoko ohitura bat berres-

kuratzeko asmoz, aurten, Gure Kai E.D.T.-ko kideok, herriko beste talde eta erakunde ezberdinekin batera, otsailaren 15ean kaldereroen desfilea egitea erabaki dugu. Urtarrilaren 11n eginiko bileran, egunaren nondik norakoez eta entsegu egunez aritu ginen. Otsailaren 15erako hainbat dantza eta abesti prestatu ditugu, eta entsegu egunak hauek izango dira: urtarrilaren 27a (astelehena), 19:30ean; eta otsailaren 8a (larunbata), 10:30ean.

Otsailaren 15ean, 19:00etan, Agirre Jauregiaren ondoan dagoen plaza txikian elkartuko gara parte hartzaile guztiak eta txokolatada batekin emango diogu hasie-

ra kaldereroen desfileari.

19:30ean desfilean irtengo gara kaleetan zehar hainbat geldidune eginez; geldidune bakoitzean, pregoia, dantzak eta abestiak izango ditugu. Eta 20:30ean, gutxi gorabehera, azken geldidunea Foruen enparantzan egingo dugu; bertan, pregoia, dantza eta abestiez gain, antzerkia ere izango dugu.

Herri guztiak parte hartzea nahiko genuke. Beraz, anima zaitzte gurekin batera, lehengo ohitura berreskuratzen eta kaldereroen desfilean parte hartzen!

*Gure Kai Euskal Dantzari Taldea*

## Amaiera polita eman genion urteari

Gabonetako oporrei hasiera ederra eman genien joan den abenduaren 23an Txuri Urdinera patinatzerara joan ginenean. Lehen Hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren mailako ikasleak izan ziren protagonista Donostian pasa genuen egun zoragarrian. Bertan, jolas pila bat egin genituen eta arratsaldean, etxera itzuli aurretik, tripa betetzeko

aukera ere izan genuen.

Hurrengo hitzordua laster izango da, inauterietan ikusiko baitugu elkar berriz ere. Aurki kaleetan zehar itsatsita aurkituko dituzuen karteletan izango duzue gure berri.

Ordura arte, SEGI GURE MUNDUA KOLOREZTATZEN!!

*Kolore Anitz Aisialdi Taldea*



## Eskerrik asko eta datorren urtera arte!

Eskerrak ematera gatozkizue, beste behin, abenduaren 24ko Olentzero eta Mari Domingiren ohiko bisitaren harira. Hitzorduak, beste edozein ekimenek bezala, prestaketa lan ugari eskatzen ditu aurrez, eta ezin izango liriteke aurrera eramane herriko hainbat norbanako eta elkarteren parte-hartzerik gabe.

Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu ondorengo hauei guztiei: kaleak musikaz betetzen dituzten Luzaroko haurrei eta musikako irakasleari, trikitalari taldeari, txistulariei eta Aitzuri abes-

batzari. Mila esker, era berean, Olentzero eta Mari Domingiren laguntzaile lanetan aritu diren Goaz antzerki taldeko eta Kolore Anitzeko partaideei, baita antolakuntzan eta salda eta txorizoa banatzen ibili diren Zubi guraso elkartekoei ere. Ahaztu gabe, noski, aldamenen izan ditugun beste norbanako guztiak ere.

Esker bereziak eman nahi dizkiegu borondate osoz eta bihotz onez hainbeste urtetan isilpean lagundu gaituztenei: Sukia fruta-dendari, egun horretan banatzen ditugun fruitu lehorrak emateaga-

tik; Gure Etxetxori, goizean elkartean biltzeko aukera emateagatik, eta Ozio-Bideri, txorizoa eta salda prestatzeko sukaldari lanak eta elkarteko baliabideak musu-truk eskaintzeagatik.

Urtarrilaren 27an (astelehena), balorazio bilera ireki bat egingo da, 19:00etan, Zuhatza elkartearen bulegoan. Guztiok zaudete gonbidatuta; zuen iritzi edo proposamenak entzun nahiko genituzke.

*Zuhatza elkarte, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko lantaldearen izenean*

ta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak,

## Olabe Garajea; hiru belaunaldi

Arakistain plazako txokoetako batean dago Olabe Garajea. XX. mendearen erdialdera sortu zen eta hiru belaunaldiren bitartez XXI. mendera iritsi da.

Hamarkada hauetan guztietan zehar aldaketa ezberdinak egin ditugu gizartearen antzera aurrera jarraitu ahal izateko. Unean uneko egoerei erabaki ezberdinen bitartez aurre egin diegu eta horrek urteetan zehar bizirauteko gaitasuna eman digu. Ibilbide guztietan bezala, atsedanak beharrezkoak izan ohi dira arnasa

hartu eta norabidea berrikusteko. Etorkizunak ekarriko duena, urte guztiotan izandakoaren antzera, oparoa izan dadila desio dugu.

Eskerrik asko hainbeste urtez gure bezero leial izan zareten guztioi. Zuek ere, gurekin batera, belaunaldiz belaunaldi, bidean aurrera egin duzue. Azken finean, Olabe Garajearen ibilbidearen parte izan zarete.

Mila esker, bihotz-bihotzez!

*Olabe Garajea*

## Iruleak Emakume Pilotariak: "Bete dugu lehen urtea!"

Urtebete igaro da Iruleak Emakume Pilotariak aurkeztu genuenetik, eta hemendik aurrera ere badugu eraikitzen joateko grina eta gogoia. Gure zutabeak indartzen eta emakumezkoak frontoira gerturatze-ko gogoia pizten jarraitzen dugula uste dugu.

Herriko emakumezkoak pilotan eta palan aritzea da gure helburu nagusia, baina Euskal Herrian dau- den beste emakumezkoek kirol hone- tan duten presentzia ere agerian utzi nahiko genuke. Hori dela eta, dato- rren hilabeteetan Emakume Master Cup pilota txapelketaren jardunaldi bat izango da Aldats pilotalekuan, eta bestelako ekintza batzuk antola- tzen ere saiatuko gara hemendik aurrera.

Aurten, betiko txapelketa azka- rrez gain, ate irekien saioak egin ditugu emakumezko gazteak frontoi- ra gerturatu nahian eta, gainera, gomazko pilotarekin ere hasiak daude gutako kide batzuk. Iruleak urtean zehar emakumezkoen gomaz- ko txapelketa desberdinetan parte

hartzen ari da; tartean behin Debako Aldats pilotalekuan ere izan dira partidak. Inguruan jokutzen diren hainbat txapelketatan parte hartzera ere gonbidatu gaituzte: Elgoibar, Mutriku, Hondarribia...

Iruleak emakume pilotariok 79 bazkideekin bukatu dugu 2019. urtea. Baina 2020an ere bazkide kan- paina berri bat jarriko dugu abian.

Laster izango dugu Iruleak Emakume Pilotarien lehenengo batzar orokorra eta, bertan, eginda- koak eta egin beharrekoak jorratuko ditugu gure bazkideekin. Gonbidatuta zaudete datorren urta- rrilaren 31n (ostirala), Agirre jauregi- ko ispiluen gelan egingo den Batzar Orokorrean parte hartzera.

*Iruleak Emakume Pilotariak*



MALEN ALKORTA

## Andutzeko elurtegia

Euskal Kostaldeko Geoparkeak "Mendiak, ura eta klima aldaketa" mendi ibilaldi gidatua antolatu zuen abenduaren 11n Mendien Nazioarteko Eguna ospatzeko. Itziarko plazatik abia- tu ginen 40 bat lagun, tartean Geoparkeko bi ordezkari, euskal unibers- tsitateko bi Geologia irakasle eta Itziarko Laka jauna. Hiru gairen inguruan antola- tu zen irteera: Geoparkea osatzen duten mendien sorrera eta bilakaera, inguruko uren jatorria eta auzolanean berriztatu den Andutzeko elurtegia.

Azken horren berri eman zigun Lakak, azalpen zehatz eta interesgarriak emanez: auzolanean egin dira berresku- ratze lan guztiak, 60 bat parte hartzaile izan dira gutxi gorabehera eta nahiko lan zaila eta gogorra izan omen da. Elurtegia Txorobilar eta Andutz arteko mendi muinoan kokatuta dago, 480 metroko altitudetan, haritz eder batzuen artean. Harri landuzko eraikuntza bat da, oin karratua, 6-8 metroko altuera eta atea ditu, eta garai batean teilatua ere ba omen zeukan. Hosto eta belarrarekin geruza bat sortzen zen eta mailakatu- joaten zen izotza eta belarra; ondoren, txirrika baten bitartez ateratzen zen izo- tza elurtegiko atetik eta astoan edo gur- dian garraiatzen zen portu zein herrieta- ra. Elurzuloaren funtzioa elurra bildu eta gordetzea zen, izotz bihurtzean, jakien kontserbetarako, arrantza-untzie- tarako eta sendabideetarako ere erabil- tzen baitzen. XVIII. mendean geroztik azaltzen da aipatua dokumentazioan, inguruko hainbat baserri-ustiati zute- larik XX. mende hasierara arte.

Mila esker auzolanean ibilitako guz- tioi gure herri-ondarea berreskuratzen egindako lanagatik!!

## Deba-Itziar: Konpromiso bat koexistentziatik elkarbizitzara bidean



Deba-Itziar, Euskal Herria, mundu globalizatukoa izanik, jatorri ezberdineko jendetzaren adibidea dugu; hori bai, merkatuari irekia eta jendearentzat hormaz beterik dago. Datu batzuk doazkizu hemen, gure Debabarrena bailarakoekin hasita; hemen azken 20 urteetan, 1996-2017, biztanle atzerritarren proportzioa % 0,6tik % 7,3ra hazi baita. Soraluze da atzerritar gehien bildu dituen udalerrria 2017an (% 9,1), eta Deba du kopuru txikiena (% 5,4). Udalerrria banatuta, hau ateratzen zaigu:

	Asiatik	Amerikatik	Afrikatik	Europako beste toki batzuetatik
Deba	% 6,63	% 49,14	% 20,64	% 23,59
Eibar	% 7,38	% 40,01	% 41,97	% 10,64
Elgoibar	% 9,85	% 43,06	% 26,95	% 20,05
Mendaro	% 7,17	% 48,07	% 29,28	% 15,47
Mutriku	% 6,28	% 30,95	% 38,96	% 23,81
Soraluze	% 10,69	% 29,69	% 49,41	% 10,21

Iturria: EJE. 2017ko Errolda Jarraituaren Estatistika

Immigranteen erroldatze datu ofizialei erreparatu gero, ondokoak dira orain debar berri ditugunak; 363 dira guztira. Nikaragutatik 98 lagun etorri dira, Marokotik 31, Senegaletik 27 eta Pakistandik 26. Errumaniar jatorria dute 19k, boliviarrak 17k, portugaldarra 16k, brasildarra 11k eta nigeriarra beste hamarrek. Aljeriatik, Frantziatik, Nepaletik eta Erresuma Batutik, adibidez, zortzina herritar etorri dira; Ekuadorretik zazpi –beste hainbeste harreman diplomatikorik gabeko herrialdeetatik–, Hondurastik sei, Txinatik bost, launa Alemania eta Argentinatik, eta hiruna Kolonia, Italia, Ukraina eta Venezuelatik. Bulgaria, AEB, Japon, Herbehereak, Errusia eta Suitzatik iritsitako lagunak ere badira –bina herrialde bakoitzetik–, baita Austria, Belgika, Txile, Cabo Verde, Kuba, Ghana, Irlanda, Mexiko, Paraguai eta Uruguaitik etorritakoak ere –bana bakoitzetik–.

2019an hauek ziren Deba-Itziarko hiritarren hizkuntzak: euskara, gaztelera, katalana, valentziera, galiziera, portugale-

ra, brasildarra, alemana, frantsesa, ingelesa, bulgariera, italiarra, errumaniera, errusiera, ukrainera, nederlandera, arabiera, arabiera hassaniera, amazighera, aimara, kitxua, mandarin txinera, nepalera, urdua, konkaniera, punjabiera, japoniera, mongoliera, edoera, wolofera, fula, serera, eta ziur aski gehiago ere badaude.

### Hau da Deba-Itziar inklusiboan daukagun erronka:

-Guztiok errespetuz, elkarren berezitasunak aintzat hartuz, elkarbizitzeko aukera izango dugun Deba herria bultzatzea.

-Elkar ezagutzea dugu Koexistentziatik Elkarbizitzarako biderik erosoena.

-Tolerantziatik errespetura joan eta, elkarrengandik, gure esperientzia eta interpretazio sozial eta kultural ezberdinetatik ikastea.

-Eskubide eta aukera berdinak bermatzea.

Zer da EUSKALDUN izatea? Euskaraz hitz egitea, eta ez dago jaiotza lekuei lotua.

Deban, Itziarren, Mutriku, Mendaron, Ondarroan, Euskal Herrian, Afrikan, Amerikan, Asian eta Ozeanian jaiotzen dira euskaldunak. Ni nikaraguarra naiz, zu marokozarra zara, hura pakistandarra eta EUSKALDUN izatea da denon erronka.

Migratzea eskubide bat da; denok daukagu bizibide hobeen bila saiatzeko eskubidea.

Ez zaigu axola nondik zatozen, nora goazen baizik.

Jose Luis Albizu eta Lukax Dorronsoro



## Uraren Euskal Agentziak artxibatu egin du hilerri berriko obrari lotutako espedientea



Debako Udalak jakinarazi du Uraren Euskal Agentziak amaiera eman diola Artzabalgo hilerriaren obra eremuan, itsas-labarreko jabari publikoaren babes zortasunaren eremuan, lanei lotuta hasieran zabaldu zen espedienteari –hala jasota dago abenduaren 4ko irteera data duen jakinarazpenean–.

Hilerri berriaren obrari lotutako bi auzi egon dira zabalik orain artean: Uraren Euskal Agentziari lotutakoa bat –orain artxibatu berri dutena–, eta Eibarko epaitegian Ingurumen Fiskaltzak zabalduetakoa bestea.

Bestalde, udal gobernuak zera azaldu du: “Abenduaren 19ko irteera data duen jakinarazpenaren bidez adierazi du proiektuan eskatzen diren moldaketak egin dituela Debako Udalak Goiko-Soluako iturburuari dagokionean; eta, obrak aipatutako iturburuak kaltetzen ez duela ziurtatu-

ta, hilerriaren kokapena egokia dela ebatzi du”.

Gogorazi duenez, “hainbat hartu-eman izan ditu Debako gobernuak Uraren Euskal Agentziarekin eta uneoro ahalegina egin du eskatu zaizkion moldaketak, tramiteak eta eskabideak betetzeko, indarrean dauden hilerri berriko lanek aurrera jarrai zezaten, beharrezko berme guztiekin. Eta egin-dako ahalegin horri esker lortu da –adierazi du– Uraren Euskal Agentzian zeuden bi espedienteak behar bezala bideratzea eta prozesua ixtea”.

“Honenbestez, Uraren Euskal Agentzian obra honi lotuta zeuden arazoak konponduta, eta Udalak espero zuen baimen definitibo horrekin, orain bai, obrak behar den baldintza egokietan jarraituko du, gai honi dagokionean bederen”, gaineratu du hedabideetara igorritako prentsa oharrean.

## Zabalik dago surf ikastaroak eskaini ahal izateko baimena erdiesteko deialdi publikoa

Debako hondartzan udako denboraldian euren zerbitzuak eskaini nahi dituzten surf eskolek urtarrilaren 31 (ostirala) bitarteko epea dute eskabidea aurkezteko.

Uda partean jende asko ibiltzen denez, eta herriko hondartza eremu mugatua denez, Debako Udalak surf ikastaroak emateko gehienez ere bi baimen onartzen ditu urte osorako. 2019. urtean baimen bakarra eman zenez, plaza bat dago libre hurrengo bi urteetarako (2020-2021).

Aurtengo udarako deialdia argitaratu da jada Gipuzkoako Aldizkari

Ofizialean. Eta aurkeztu beharreko dokumentazioa Udalaren webgunean argitaratuta dago ([www.deba.eus](http://www.deba.eus)).

Eskabide bat baino gehiago aurkeztuko balitz, baimena baremazio bidez esleituko dela jakinarazi dute Udaletik; alegia, eskatutako betebeharrak betetzen dituzten eskabide guztien artetik puntuaziorik handiena lortzen duen eskola hautatuko da.

Debako Udaleko herritarren arretarako bulegoan aurkeztu beharko da eskabidea, ordutegi honetan: astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara bitartean.



IGOR LARRAÑAGA

## Zer moduz dago Fulanito, ondo?

Gure artean badira pozoi kutsua darien galderak eta jokamoldeak. Honako hau gizartean nahiko errotua dagoela ikusi izan dut, eta nik ere sarri izan dudana jokamoldea dela ere badakit.

Dagoeneko herri guztira zabaldu den berria da Fulanitori gaixotasun larri bat diagnostikatu diotela. Fulanito herrian nahiko ezaguna den arren, nik familiakoa edota gertuko laguna izan dezaket. Kaletik zoazela sekula hitz egin ez didan horrek (Fulanita) gelditu eta...

**Fulanitak:** Aizu! Zer moduz dago Fulanito, ondo?

**Nik:** Egun on, ezer baino lehen, Fulanita.

**Fulanitak:** Egun on, bai, baina zer moduz dago Fulanito, ondo?

**Nik:** Berari galde diezaiokezu, ordu honetan hondartza aldera joateko ohitura du. Ibai aldetik bazoaz, seguru berarekin topo egingo duzula.

**Fulanitak:** Etxera joan beharra daukat ordea, bazkaria prestatzera. Baina zer moduz dago Fulanito, ondo?

**Nik:** Mugikorra gainean izaten du eta gustura asko erantzungo dizu berak.

**Fulanitak:** Seguru deitzeko tartea dudanean siestan edo momentu txarren batean harrapatuko dudala eta... zer moduz dago Fulanito, ondo?

**Nik:** Lasai horregatik! Momentu txarra baldin bada, ez du mugikorra hartuko eta kitto. Deituko dizu berak momentu txar hori momentu on bihurtzen denean.

**Fulanitak:** Ez al didazu erantzun behar Fulanito ondo al dagoen?

**Nik:** Ez, Fulanita, berak ezagunekin zuen erlazioa ez du galdu nahi. Diagnostikoa eman ziotenetik gero eta jende gutxiago gerturatzen zaio, eta egoera horrek gaixotasunak baino min handiagoa ematen diola esan dit.



**Estibaliz Beltran de Heredia**

Ostolaza Udal Liburutegiko arduraduna

# Liburu artean

Jakina da udal liburutegietan gai eta genero askotako liburuak daudela; gaurkoan gonbidatu nahi zaituztet komikiz eta eleberririk grafikoz osatuta dagoen bilduma ezagutzera, baita irakurtzera ere. Ez da bilduma handia, baina oso egokia da literaturara hurbiltzeko eta hezkuntza baliabide gisa

erabiltzeko. Liburu interesgarriak daude: biografikoak, historikoak, hainbat gai jorratzen dituztenak... Azken urteotan euskaraz gero eta gehiago ari dira argitaratzen, euskaraz sortuak edota euskarara ekarriak. Jarraian dituzue gomendio batzuk:

## Helduak



**Antzara eguna** (Harkaitz Cano). Txalaparta, 2019.




**Elefantearen tristura** (Nicolas Antona). Harriet, 2018.



**Aztihitza: Xahoren biografikoa** (Asisko Urmeneta). Erroa, 2018.



**Joana Maiz** (Yurre Ugarte). Harriet, 2019.



**Zubigileak** (Alfonso Zapico). Astiberri, 2018.



**Autobusa berriro bera gabe abiatu zen egunekoa** (Beka). Harriet, 2017.



**Buyan: Heriotzaren uhartea** (Martin Etxeberria). Turko Comics, 2019.

## Haurrak / Gazteak



**Kemena** (Garazi Albizua). Denonartean, 2017.



**Maitasuna zailegia da** (Andrés Guerrero). Begiko, 2018.




**Kortsarioen ostatua** (Dani Fano). Euskal Herriko Ikastolak, 2015.



**Belardo ba al zatoz?** (Mattin). Berria, 2019.



**Elefantearen semea** (Yann Degruel). Ttartalo, 2011.



**Saba eta landare magikoa** (Yann Degruel). Ttartalo, 2013.



**Marie Curie: radioaren aktibitatea** (Jordi Bayarri). Ikasgelkar, 2015.



## Nerea Loiola: "Istorioa barrenetatik sentitu bezala idazten dut"



Erein argitaletxearen eskutik ikusi du argia Nerea Loiola Pikazaren (Deba, 1985) "Azken Lanhütarra" liburuak. Hurrei zuzendutako bigarren literatur lana du, baina gehiago ere etorriko omen dira, sortzen jarraitzeko asmoa duela kontatu digu eta.

**Zer aurkituko du irakurleak zure liburuan? Zelan laburbilduko zenuke "Azken Lanhütarra"?**

*Azken Lanhütarra* abentura istorio bat da, zientzia fikziozkotzat har genezakeena, adiskidetasunari buruzko ipuin bat, sakrifizioari buruzkoa, maitasunezko kontakizun bat: maitasuna naturari, maitasuna lagunei, senideei eta etorkizunari. Adiskide talde bat da ipuineko protagonista, eta narratzailea haietako bat. Zuberoan abiatuko da istorioa, Maulen. Mauleko gazteluan egurrezko irudi bat topatuko dute umek eta, haren bitartez, misterio baten berri izango dute: gezur bat sine-tsarazi zaio gizateriari, uraren zikloak ez dauka ikasi dugunarekin zerikusirik.

**Fantasia sinetsita ezagutuko dute hurrek Oraire: azken lanhütarra. Nor da Oraire?**

Hodeietan bizi den izakia da Oraire, hodei-gidaria, lanhütarra. Bere lanari esker osatzen da uraren zikloa. Bere espeziean bizirik gelditzen den azken izakia da baina, eta hori dela eta jarriko da harremanetan Amets eta bere lagunekin, laguntza eske.

**Hurrei zuzendutako bigarren lana duzu hau, baina aurreko liburua**

("Harri bat poltsikoan") txikiagoei zuzendutako istorioa zen, ezta? Nahita bilatu duzu hori ala berez etorri da?


Bai, hala da. Ez da bilatutako zerbait izan. Istorioa barrenetatik sentitu bezala idazten dut eta emaitza aztertu ondoren erabakitzen da zein adin tartetan kokatu daitekeen. Hala ere, liburuak adinka sailkatzearekin badut dilema moduko bat. Ulertzen dut zergatik egiten den, baina nire ustez adinari ez ezik haurren gaitasun literarioari ere erreparatu behar zaio liburu bat aukeratzeko, eta noski, genero literarioari ere bai.

**Durango Sagunganbaran abenduan eta Zarauzko Garoa liburdendand berriki. Zer moduz joan dira orain arteko aurkezpenak?**

Ederki! Jendaurreko ekitaldietan lotsa handia pasatzen dudan arren, niretzat oso ederra da hain gustagarria egiten zaidan zerbait erakustea.

**Eta aurrera begira zer? Sortzen eta idazten jarraituko al duzu?**

Bai. Pare bat proiektuekin nabil orain. Alde batetik, *Azken Lanhütarra* ren bigarren atala dut esku artean eta, bestalde, helduentzako ipuin liburu bat ere ari naiz idazten, Eusko Jaurlaritzak emandako sormen beka bati esker.



### Fitxa teknikoa

Izenburua: "Azken lanhütarra"  
Egilea: Nerea Loiola  
Irudigilea: Cristina Fernández Argitaletxea: Erein  
Salneurria: 10 euro (BEZ barne)  
Orri kopurua: 104



AINARA SEDANO

### Erreferenteak eta fedea

Duela zenbait hilabete, "Señora" arteko mahai-inguru batean izan nintzen; hezkuntzan emakume erreferenteak ezagutzera ematen dituen ekimen bati buruzkoa zen. Eta pentsatzeko luze eman zidala aitortu beharra daukat.

Ekimen honek zenbait eskolatar, neska gazteen artera, emakume erreferenteak eraman ditu. Zein helbururakin? Ba emakumeak nagusi ez garen arloetan, gutxi batzuk bagara ere, zenbait bagaudela jakitera emateko. Neska gazteek, etorkizuneko emakumeek, argi izan dezaten. Eta beraien etorkizunean, oraindik emakumeak gutxiengo izango diren arlo horietako batera jotzea nahiko balute, gogoratu dezatela eskolan helburu hura lortu zuen emakume bat behintzat ezagutu zutela. Posible dela. Aukera dagoela. Andre suhiltzaileak badaudela, arrantzaleak, surflariak, palazaleak, mekanizatzaileak, iturginak, maila goreneko zientzialariak,...

Ni neu emakume erreferentea naizela, mekanizatu lantegi bateko nagusi izanda. Gaizki dagoela nik esatea? Ze arraio! Jakin dezatela neska gazteek beraientzat ere aukera bat dela, beste edozein bezain baliozkoa.

Nik pertsonalki ez dut sinesmen aldetik eragozpen handirik izan, eta horren eskertza gizon bati eman nahi nioke; aitari, hain zuzen. Nigan beti fedea izan duelako, eta helburuak ezartzean emakume izatea ez delako sekula traba bat izan. Nik edozein tokira heltzeko dudana gaitasunean sinetsi izan du beti. Eta hain handia izan da haren fedea, non azkenean nik ere sinetsi bainuen.

Gure buruari proposatzen diogun tokiraino helduko garela! Zalantzarik gabe.



## Elkartasun keinu sendoa Euskal Herritik Etiopiarra

**Etiopiarekin elkartasunean, Hegoak Ethiopian Elkarteak sortu berri dute herrialde hartan bertan elkar ezagutu duten lau emakume euskaldunek –tartean dago Alaitz Escudero erizain debarra–. Landa eremuan bizi diren neska gazteei laguntzea da proiektuaren helburu nagusietako bat; hilekoa dutenean ezin izaten dira joan eskolara, horrek dakartzan ondorioekin, eta arazo horri irtenbidea bilatu nahian hasi da lanean elkarteak. Esku artean duten proiektuaz eta Ethiopian izandako bizipenen inguruan aritu gara *Berriketan* Escuderorekin.**



Etiopiarra egindako bidaietan elkar ezagutu zuten Estibaliz Alberdi Perea hernaniarrak,

Naiara Altuna Ortiz de Zárate iruindarrak, Lore Eizaguirre Otamendi zarauztarrak eta Alaitz Escudero Unanue debarrak; gizarte-langileak da lehenengoa, botikaria bigarrena, eta erizainak dira beste biak. Laukote gazteak sortu berri du bidea egiten hasia den Hegoak Ethiopian irabazi asmorik gabeko elkarteak. Ezinbesteko kide eta bidaide dute, era berean, Terhas Teare Belay etiopiarra.

Elkartasun proiektua da Hegoak Ethiopian. Alaitz Escudero laburbildu duenez, herrialde hartako landa eremuan bizi diren emakumezkoek lagundu nahian sortu da, funtsean, elkarteak. “Hilekoa dutenean, neskek ezin izaten dira eskolara joan eta horrek eragin zuzena du, adibidez, haien ikasketa-emaitzetan, nabarmenki jaisten dira eta. Arazo horri irtenbidea bilatu eta jarraipena ematea da gure elkartearen helburu nagusia”.

Erronka ez da nolana hikoia, baina dagoeneko egin dituzte lehen urratsak. Proiektua ezagutarazi nahian dabilta

orain taldekideak, boluntariora sustatu eta diru-laguntzak jasotzeko asmotan.

“Proiektu ezberdinak jarri ditugu martxan, neska etiopiar haiek etxean geratu behar izatea eragiten duten faktoreak deuseztatzeko helburuz”, azaldu du erizain gazteak. Eta jarraian aipatu ditu ekimen horietako zenbait, hala nola material biltzea. Konpresa berrerabilgarriak nahiz erabili eta botatzekoak biltzen dihardute; “berrerabilgarriari eman nahi diegu garrantzia, besteak bukatu egingo zaizkielako eta ahalik eta zabor gutxien pilatu nahi genukeelako”.

Eskolan ur-biltegia eraikitzea eta instalazioak berritzea –komunak, bereziki izango da bigarren urratsa.

**“Ezinezkoa izan zaigu begiak itxi eta gure egunerokotasunera itzultzea. Asko zor diegu. Eurei Hegoak eskainiko dizkiegu, Ethiopian ere aske egin dezaten hegan”**

Eta, etorkizunera begira, “falta dituzten baliabideak eskaintzeaz gain, osasuna sustatzea eta emakumeen ahalduntzea dugu helburu”, nabarmendu du. Bide horretan, eratzte bidean da sexu-heziketa proiektua, adibidez. Higienea, hilekoa eta sexu-harremanak izango dira proiektu horretan landuko diren zutabe nagusiak. “Asmoa da sexu-heziketan adituak diren profesionalak Etiopiarra bidaiatzea, hiruzpalau emakume etiopiar behar bezala hezi eta prestatzera; eurak izan daitezten, aurrerantzean, landa eremuko ikastetxe batetik bestera heziketa emateaz arduratu diren profesionalak. Eurak direlako, azken finean, herrialdea eraldatzeko motorrak”.

Proiektuaren inguruko xehetasunak ezagutu edota elkartearekin harremanetan jarri nahi dutenek mezua idatzi dezaketete [hegoaketiopian@gmail.com](mailto:hegoaketiopian@gmail.com) helbidera (sare sozialetan ere presente daude).

### Bizipen ahaztezinak

Hegoak Ethiopian Elkarteak sortzaileek bertatik bertara ezagutu dute Etiopiako errealitatea, edo errealitate horren zati txiki bat behinik behin. Egonaldi ezberdinek egin dituzte herrialde hartan, eta bizi-

pen horien ondorio zuzena da orain esku artean duten egitasmoa.

Bi urtez jarraian (2018-2019), Etiopiako ipar ekialdean dagoen Wukro herrian -Tigray eskualdean- hilabeteko egonaldiak egin ditu, adibidez, Escuderok. Saint Mary misioan izan da, Angel Olanan misiolari hernaniarrak lan egiten duen lekuan.

“Duela ia hogeita hamar urtetik hona, erlijioa zabaltzeaz gain, proiektu ugari egin ditu Angel Olanarek bertako bizi-modua hobetu zedin -azaldu du debarrrak-. Tartean dira Euskal Herrian lan egiten duten gobernuz kanpoko erakunde eta elkarte ugari ere. Bertatik bertara ezagutzeko joan nintzen iaz, Lore lagunarekin, lehenengo aldiz”.

Esperientzia errepikatu nahi izan dute aurten, Wukrora bigarren aldiz bidaiatuz. “Laguntzera itzuli gara biok -aipatu du-. Batetik, Angelekin lotura duten proiektuetan aritu gara: zentro sozialeko gizarte-langileekin adineko pertsoneri eta umezurtzei laguntzen, eta kirola sustatzeko proiektuan nesken taldeekin kolaboratzen. Bestetik, Angelen proiektuetan ez ezik, Wukroko Emakumeen Elkartearekin elkarlanean eta ospita-

lean erizain gisa ere jardun dugu”.

Bertan hilabete egin duten arren, “urtebete pasatu izanaren sentsazioa” dutela azaldu dute erizainek; “intentsitate handiz bizi izan dugu guztia”.

### Txanponaren bi aldeak

Etiopiar egindako bidaietatik bueltan zer sentsazio ekarri duten galdetzean, irakurketa gazi-goza egin du Escuderok.

“Egunetik egunera, gauzak okerrago joaterik ez dutela uste arren, han beti izan daiteke okerrago -azaldu du-. Eta ez naiz txikieriez mintzo: egunero miseria ondoan sentitzeaz, tratu txarrez, gaixotasunez, egoerari etekina ateratzen dioten dirudunetz... ari naiz. Gure bizitzetako momenturik gogorrenak bizi izan ditugu bertan, gure buruari ezin dut gehiago, honaino iritsi gara esateraino”.

Txanponaren beste aldea ezagutzeko aukera ere izan dute, ordea; bizipenen alderik gozo eta politena nabarmendu baitu Escuderok jarraian: “Bertako jendareekin lotura estua egin dugu (umeak, gazteak, helduak...), gure herrialdean galtzen ari diren balioak irakatsi dizkigute eta egoerarik latzenetan aurrera egiten



Elkartearen sortzaileak

ikusi ditugu. Hemendik atera dugu indarra hango egunerokotasuna lasaitasunez eramateko, hemen sentitu dugu beharra honelako proiektu bati ekiteko. Eta hemendik atera dugu gogoia bertara itzultzeko. Gure bihotzaren eta buruaren zati bat eurekin geratu delako, Wukron”.

“Ezinezkoa izan zaigu begiak itxi eta gure egunerokotasunera itzultzea; zorionez, guztiok ez gara horrelakoak. Halako esperientzia bat eurekin bizitzeak ez du preziorik. Asko zor diegu. Eurei Hegoak eskainiko dizkiegu, Etiopian ere aske egin dezaten hegan”.







## Literatur lanak aitona-amonentzat

59 ikaslek parte hartu dute Arbil elkarteak eta Mendata institutuak elkarlanean antolatutako literatur lehiaketan



Literatura hitzen jolasa dela entzun diot norbaiti. Eta, bai, hala daiteke, jolasa komedia, drama edo arrunta izan daitekeen neurrian. Hala ere, nahiago dut historia edo istorio baten kontakizuna dela esatea. Historiak eta istorioak gertatu egiten dira benetan edo fantasian. Gertakari bat ondo kontatzeko, ordea, beharrezko zaigu, lehenbizi, geure irudimenean biazaraztea, gertatu zela dakigun edo uste dugun era berean, gorabehera eta sentsazio guztiakin; eta, orduan, konta dezakegu, oroimenean ikusia, zehaztasun osoan.

Zuen lanak irakurtzerakoan, hiru eratako jarrerak antzeman ditut. Batzuek ez dute erakutsi, gutxi gorabehera agindu zaiena, orri bat betetzea beste asmorik. Beste batzuk lan hori ahalik eta txukunen osatzen saiatu dira eta lortu. Talde txikiago batek bere buruari jarri dio erronka eta oroimena dantzan jarri du eta, ondorioz, honek eman dizkion bizipenak eta sentsazioak ahalik eta zehatzen kontatzeko, hitz, esamolde eta joskerak egokienak aukeratu eta erabiltzeari heltzen dio.

Hori guztia aurkitu dut zuen lanetan eta azkenean lau gutun geratu zaizkit esku artean, aipamena merezi dutenak. Beste azteraldi bat eman ostean, honela ikusi ditut:

*\*\*-"Gabonak..., familia batera egoteko garaia; denak sutondoan, goxo-goxo, barrezka, hitz egiten, oroitzapen politak gogoratzen... Gogoan ditut madalenen usaina, eta lotaratu aurretik emandako muxua eta abestutako abestia..."*

*...gau epeletan, zerua lainorik gabe zegoenean, ibiltzera joaten ginenean, zerua izarrez beteta zegoenean..."*

Kontakizun arrunta baino gehixeago da hau; baietz! **BATERA BERRIZ ERE** gutunetik hartu dut eta **aipamen berezia merezi du. Idazlea: Marina Aceña.**

*\*\*-"Zure bizitza ez da kontatzeko polita den bizitza zoragarri horietako bat..."*

*Jaio eta lau urtera aita hiltzeak ez du bate-re atsegina izan behar eta are gutxiago gerra batean fusilatua denean...*

*Eskerrik asko ... gauero ipuin ezberdin bat kontatzen saiatzen zinelako..., ipuineko lehen pasartea irakurrita zure beso goxoetan lo seko geratzen nintzen eta..."*

**ESKERRIK ASKO DEN-DENAGATIK, AMONA** gutunetik hartu dut. Kontakizun hunkigarria da eta **hirugarren saria merezi du. Idazlea: Nere Barrera.**

*\*\*-"Ez dakit nola esan, ez dakit zer esan, ezin dut jasan, ezin dut sinetsi atzo gauean gertatutakoa; gure arteko azken begirada,*

*azken irribarrea, azken laztanak, "maite zaitut" esateko azken aukera, azken agurra, azken hitzak (...), tristurak eta saminak estali zituen geure bihotzak (...)*

*... faltan botako bazaitut ere, nire bizitzaren parte izaten jarraituko duzula esan nahi dizut (...) beti maitatuko zaitudala.*

**ESKERRIK ASKO, AITONA** gutunetik jasoa. Bihotza taupada bizian jartzen duen idazlana da. **Bigarren saria merezi du. Idazlea: Jon Torronteras.**

*\*\*Argazkietan aitatxi polita da zu ikustea politagoa izango zen zure ondoan egotea (...)*

*Zaila da baina lagundu izaten ume libre lagunekin jator eta ezberdina maitatzea (...)*

*Zaindu nazazu aitatxi erakustazu bidea egunen baten nonbaiten e(d)ukiko dugu elkartzea!*

**AITONA** gutunetik hartua. Aitonak utzi zion hutsunearen kontakizun erabat arrazionala eta zehatza da. Bertsotan idatzia, zailtasun gehiago hartuz. Hauek honela, **lehenengo saria merezi du. Idazlea: Mattin Agirrezabala.**

Eskuineko orrialdean dituzue irakurgai saritutako hiru gutunak.

*Lukax Dorronsoro*



Irudiak: Ander Salegi

## Aitona

Kaixo, aitona maitea!  
Zer moduz zaude? Ni ondo,  
baina faltan botatzen zaitut.

*Pasa dira hamar urte  
ez genuen nahi zu joatea  
oroitzapen gutxi dauzkat  
erraza da pentsatzea*

*Amak esanda badakit  
nintzela zure maitea  
nahi zenuela nirekin  
denbora asko pasatzea*

*Zure hitz goxo (e)ta laztanak  
nahiko nuke sentitzea  
elkarrekin musean egin  
esku-pelota ikustea*

*Argazkietan aitatxi  
polita da zu ikustea  
politagoa izango zen  
zure ondoan egotea*

*Handitzean nahiko nuke  
izan zure umorea  
besteen esanak ahaztu  
zorientsu bizitzea*

*Zaila da baina lagundu  
izaten ume librea  
lagunekin jator eta  
ezberdina maitatzea*

*Momentu oro gozatu  
bestek ez epaitzea  
zu izan zinen bezala  
mutil ona izatea*

*Zaindu nazazu aitatxi  
erakustazu bidea  
egunen baten nonbaiten  
e(d)ukiko dugu elkartzea!*

\*Doinua: Habanera



## Eskerrik asko, aitona

Kaixo, aitona maitea!  
Ez dakit nola esan, ez dakit zer esan,  
ezin dut jasan, ezin dut sinetsi atzo gauean  
gertatutakoa, gure arteko azken begirada,  
azken irribarrea, azken laztanak, "maite zai-  
tut" esateko azken aukera, azken agurra,  
azken hitzak.

Bada urte bat zure arima pixkanaka-  
pixkanaka itzaltzen hasi zela, tristura eta  
momentu eskasak algarak eta barreak baino  
maizago adierazten zenituela. Denok  
genuen esperantza txiki bat, egunen batean  
geuregana hurbildu eta "dena amaitu da,  
dena konpondu da" esango zenuelakoan,  
baina ez, ez zen hori gertatu, ez zen horrela  
izan; horren orde, tristurak eta saminak  
estali zituen geure bihotzak. Beraz, aurrera  
segi eta zu nire alboan egon ez arren, maite  
dut zutaz oroitu eta irribarre egitea, malko-  
ak oroitzapen ederrek sortutakoak izatea, 12  
urte hauetan nire ondoan egoteagatik eta  
inoiz amore ez emateagatik.

Beti gogoraraziko ditut txikitako bihu-  
rrikeriak zure alboan, eskolatik atera eta zu

nire zain egotea besoak zabaldurik nire  
besarkada eta muxuaren zain, zeure bizitza-  
ren inguruan kontatu zenizkidan istorio  
guztiak, asteburuko bazkari familiarrak,  
non beti esertzen ginen ondoan eta familiar-  
teko jolas guztiak irabazten genituen.  
Ezingo nuke aitona hoberik eskatu, nire  
lagun mina, aitona eta heroia izan zara.  
Nahiz eta zu gaizki egon, ni triste edo nega-  
rrez ikustean beti zeneukan moduren bat ni  
pozteko eta alai ikusteko.

Horregatik, hemendik aurrera zeure  
eskua heltzeko aukera izan ez arren, zeure  
ahotsa entzun gabe egon behar banaiz ere,  
nahiz eta aurpegia malkoz beteta ez egotea  
zaila izan, eta munduko pertsona garrantzi-  
tsuenetako bat izatearren faltan botako zai-  
tudan arren, nire bizitzaren parte izaten  
jarraituko duzula esan nahi dizut. Ez zaitu-  
dala inoiz ahaztuko, egunero nire pentsa-  
menduetan egongo zarela, neure bihotzean,  
eta lehen, orain eta beti maitatuko zaitudala.

Eskerrik asko denagatik, aitona.

Zure biloba, Jon.

## Eskerrik asko den-denagatik, amona

Amona maitea,  
Ez zenuen bizitza erraza izan, zure  
bizitza ez da kontatzeko polita den bizitza  
zoragarri horietako bat, baina gertatu  
zitzaizkizun gauzen ondoren nola zauden  
ikusteak indarra ematen dit.

Jaio eta lau urtera aita hiltzea ez da  
batere erraza izan behar eta are gutxiago  
gerra batean fusilatua denean. Baina zuk,  
bertatik atera eta, zure bizitzarekin aurre-  
ra jarraitu zenuen.

Hogeita bi urte zenituen nire amatxo  
mundura ekarri zenuenean. Gaztea zinen,  
eta, hala ere, umetxoari maitasun eta arre-  
ta guztia ematen zenion. Horregatik, eske-  
rrik asko bat zor dizut.

Gauero ipuin ezberdin bat kontatzen  
saiatzen zinela, baina nik beti ipuin ber-  
dina aukeratzen nuelako. Izan ere, inoiz  
ez nintzen bukaera entzuteko gai izan,  
ipuiniko lehen pasartea irakurrita zure

beso goxoetan lo seko geratzen nintzen  
eta.

Zure San Blasak maite nituen. Batez  
ere, jatea, baina zurekin batera opil goxo  
haiek egitean sukalde osoa goitik behera  
zikintzea oso dibertigarria zen, nahiz eta  
gero aitonaren errietak jasan. Amari era-  
kutsi nion errezeta, baina ez da berdina.  
Zuk egindakoek ez dute parekorik! Baina  
praktika pixka batekin lortuko dut, espero.

Oraindik gogoan ditut egiten geni-  
tuen mendi buelta horiek. Gogoratzen  
zara? Beti galduta bukatzen genuen,  
baina zure basajaunen eta iratxoan isto-  
rioak entzutearekin dena ahazten nuen.

Orain, herriko jendeak zure antz han-  
dia dudala esaten dit eta, egia esan, oso  
harro sentitzen naiz hori entzuterakoan.

Ez dakizu zenbat gauza ditudan zuri  
eskertzeko, baina laburrean esango dizut:  
eskerrik asko guzti-guztiagatik, amona!



## IKASLEAK ERE INGURUMENAREN ALDE

Ingurumena zaintzearen alde egiten duten ikasleak ere badira Mendata institutuan. Hori dela eta, Agenda 21 proiektuarekin bat egin duten Mahia Gomez eta Miren Sagarna elkar-rrizketatu nahi izan ditugu ale honetan. Agenda 21 ekimena, munduaren egoera, itsasoaren kutsadura... izan ditugu hizpide solasaldi honetan.

**“Agenda 21 proiektuarekin bat egitera animatu nahi dugu jendea, mundua hobetu behar dugu eta”**



Zertan datza Agenda 21 proiektua? Azalduko diguzue, adibidez, zer nolako gaiak lantzen dituzuen bertan?

Urtero-urtero gai ezberdinak aukeratzen dira. Aurten, adibidez, ekoizpen eta kontsumo arduratsua lantzen ari gara.

**Noiz hasi zineten zuek Agenda 21ean parte hartzen?**

Mendatara iritsi ginenetik gabiltza proiektuan murgilduta.

**Zerk edo nork animatu zintuzten egitasmoarekin bat egitera?**

Gure irakasle batek animatu gintuen egitasmoarekin bat egitera. Munduaren egoera aldatzeko erronkari helduta sartu ginen honetan.

Eskola amaitzen denean, proiektu honekin edo antzeko beste batzuekin jarraituko al duzue? Gure ustez bai, jarraituko dugu.

**Zelan ikusten duzue munduaren egoera gaur egun? Eta Debako egoera?**

Larria da egoera, mundua gaizki dagoelako. Debaren kasuan, aurrera goaz, baina oraindik aldatu beharreko gauzak ditugu.

**Zer iritzi duzue itsasoan dagoen plastiko guztiari buruz?**

Itsasoan plastiko ugari dago eta plastiko hori arrai- nek jaten dute. Gainera, gugan ere eragina dauka horrek eta hori ez da batere ona.

**Animatuko al zenukete jendea Agenda 21 ekimenean parte hartzera?**

Bai, noski! Proiektu honekin bat egitera animatu nahi dugu jendea, mundua hobetu behar dugu eta.



### Prentsa tailerra 2019-2020

Leire Acebes, Nora Ait Akki, Kerman Aizpurua, Ione Aranberri, Ane Castillo, Urko Garcia, Kimetz Oñederra, Nadia Peralvo, Ibai Perez, Amalur Ponce, Nerea Urbizu, Maddi Urkiri eta Haizea Zubimendi.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzaileak:



babesleak:






## POEMA PRESOA

Lotan...  
 Nasaituren antonimoa  
 Seiko urrea, musa, txintxon, eskoba...  
 Oxigenoa iristen den organoa  
 Udazkenean zuhaitzei falta zaiena  
 "Tatari, tatari, tatari... va a salir" (euskaraz)  
 Goizetan... atera  
 Non bizi dira animalia batzuk?  
 Zuretzat...-a lapurtuko nuke gauero...  
 Behe... (eguraldi txarra)  
 Zatarra ez dena  
 Zerbait egin eta ez zarenean ondo sentitzen horregatik  
 Zerbaiten gain zaudenean  
 Zerbait seinalatzeko...  
 Tortilla...  
 Garbia ez dagoena  
 Norbaiti zerbait uzteko... diot  
 Aukeratzen den familia


A	M	1	S	T	2
	3				
4	5	6		7	
8			9		
10	11		12		
13			14		15
16					
17	18				
19					
			20		21
22			23		
24	25				
	26				27
	28	29			
30			31		
	32			33	
34			35		
				36	

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21
-----																				
				22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36		
-----																				

## HIEROGLIFIKOAK



Kolore bat



Nolakoa da ariketa?

**URTARRILAK 24, OSTIRALA**

-19:00. Dokumentala: *"Made in, made for"* (ondoren, solasaldia), Itziariko Burugorri gainean.

**URTARRILAK 26, IGANDEA**

-16:30. **Haurrentzako zinea**, Kultur Elkartean.

**URTARRILAK 27, ASTELEHENA**

-19:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorreraren **balorazio bilera irekia**, Zuhatzaren bulegoan.

**URTARRILAK 29, ASTEAZKENA**

-19:00. **Irakurketa kluba**, Ostolaza udal liburutegian. *"Neguko argiak"* (Irati Elorrieta) liburuaz arituko dira.

**URTARRILAK 31, OSTIRALA**

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaraztea, plazan.

-22:00. **Negudak Kontzertuak** Debako gaztetxean: Unidad Alavesa, Azken Sustraiak eta DJ MTR.

-23:00. Kontzertua: **Kike Tormenta**, Itziariko Burugorri ostatuan.

**OTSAILAK 2, IGANDEA**

-16:30. **Haurrentzako zinea**, Kultur Elkartean.

**OTSAILAK 4, ASTEARTEA**

-**Santa Ageda bezpera**. Arratsaldean zehar, ikaste-

txetako ikasleak, musika eskolakoak eta Aitzuri Abesbatzako kideak kalez kale ibiliko dira.

-17:00. **Santa eskea** kaleetan zehar, Itziariko plazatik hasita (ume eta gurasoei zuzenduta).

**OTSAILAK 8, LARUNBATA**

-8:30. **Santa eskea baserriz baserri**, Itziariko plazatik hasita (zahar eta gazteentzat).

**OTSAILAK 9, IGANDEA**

-12:00. **Bisita gidatua: "Gotikoaren altxorra, Deban"**, Debako Santa Maria Elizan.

-**Ipuin kontaketak**, ispiuluen gelan: 17:00etan, 3-7 urte bitartekoentzat / 18:00etan, 7-12 bitartekoentzat (Debako Kontalarien eskutik).

**OTSAILAK 14, OSTIRALA**

-22:30. Kontzertua: **Hezurbeltzak**, Itziariko Burugorri aretoan (sarrera: 5 euro).

**OTSAILAK 15, LARUNBATA**

-19:00. Txokolatada Agirre jauregian. Ondoren, **kaldereroen desfilea**.

**OTSAILAK 16, IGANDEA**

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz M.T. eta Luzarok antolatuta: Hueto de Arriba-Ganalto.

-16:30. **Haurrentzako zinea**, Kultur Elkartean.

**Janari bilketa; Mendebaldeko Sahara**

Mendebaldeko Saharara bidaltzeko janari bilketa (arroza, pasta, lekaleak, olioak, azukrea...) egingo da urtarrilaren 24an, 17:00etatik 20:00etara, eta urtarrilaren 25ean, 11:00etatik 14:00etara, Foruen plazan. Otsailaren 1a bitartean, bilketa kaxak jarriko dira janari-dendetan.

**Odola emateko deialdia**



Otsailaren 14an (ostirala) odola emateko saio berri bat egingo da Luzaro ikastetxean (17:00-20:30). Debako Odol Emaileen Elkarteak bertan parte hartzeko deialdia egin du.

**KZguneko ikastaroak**

-KZgunea arratsaldean arituko da urtarrilean, eta goizez otsailean. Hainbat ikastaro eskainiko dira bertan: oinarrizko formakuntza, ofimatika, erosketa seguruak interneten... Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus) ataria.

**ZAINTZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **urtarrilak 31.**  
**otsailak 1, 2, 10, 11, 12, 13.**  
Burgoa Zuazo: **urtarrilak 27, 28, 29, 30.**  
**otsailak 14, 15, 16.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**  
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: otsailak 8 eta 15

BURGOA ZUAZO: urtarrilak 25 / otsailak 1


**9:30 - 13:00**



**ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN**



Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



MASAJISTA

Tel.: 677 557 615

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

28 URTEKO ESPERIENTZIA

DEBA

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
www.atari.deba.com

**A D**

**ASESORIA DEBA**  
Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**LENTZERIA**  
**Azoka**  
**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**ASKETA, S.L.**  
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Enpresa Registrada N.º 2/05/049  
NIVEL 2

**AUKERA**  
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

**API** 447

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faksa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

**Zuhatz**

**943 191 383**

berriketan@zuhatza.com

**k**  
**kutxabank**

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
N.º 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

# 2020an ere EUSKARAZ BIZUKO GARA

## KOLORE ANITZ URTEAN ZEHAR



OTSAILAK 21  
MARTXOAK 29  
APIRILAK 24-25-26

Inauteriak adin guztientzako  
Irteera 2012-2013 bitartekoak  
Udaleku ibiltariak (2008-2009)